



HEZKUNTZA IKUSKARITZAREN URTEKO PLANA

2010 – 2011 IKASTURTEA

**HEZKUNTZA IKUSKARITZA
E.A.E.**



HEZKUNTZA IKUSKARITZAREN URTEKO PLANA

2010/11 IKASTURTEA

1. SARRERA

Hezkuntza Ikuskaritzaren planak ikastetxeetan eta Administrazioako beste erakunde batzuetan jarduteko dituen bideak dira. Halaber, esku-hartze horiek ahalbidetzen dituen zerbitzuaren barne antolaketa ere azaltzen dute.

Ikuskaritzaren jarduerak lau esparrutan sailkatzen dira:

- Ebaluazioa.
- Arau-Kontrola.
- Aholkularitza, orientabidea eta informazioa.
- Lankidetzak.

Ikastetxeei dagokienez, Hezkuntza Ikuskaritzaren esku-hartzeek ikastetxe horien oinarrizko helburuari, ikasle guztiei kalitateko hezkuntza-erantzuna emateari eta ikasteko prozesuak arrakastatsuak izateari, balioa eransteko lagungarri izan behar dute. Ikastetxeetako lagun bakarreko eta lagun anitzeko organoekin etengabe harremanetan egotea da Hezkuntza Ikuskaritzaren eginkizunen ardatza. Horrela behar bezala piztuko diete gogoia, haien autonomiaren eremuan legediak ematen dizkien ardurak eta eskuduntzak erabil ditzaten. Eskola-antolaketa sakon ezagutu behar dela ere hartu behar dute eginkizun horiek kontuan, baita ikastetxeen eskola-giroa, irakaskuntza-praktika eta baliabideen banaketa ere.

Hezkuntza Ikuskaritzaren barne antolaketak ikastetxeetan eta administrazioako beste erakunde batzuetan egin beharreko jarduerak sistematizatu, ordenatu eta lehentasuna ematea ditu helburu.

2010-2011 ikasturtearen plana gaur egun indarrean dagoen Hiru Urteko Planaren aldiaren azkena da. Horregatik, Hiru Urteko Plan horretan ezarritako helburu orokorrek indarrean jarraitzen dute eta, diagnostiko-ebaluazioaren emaitzen arabera, Lehen eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza ematen dituzten ikastetxe guztiek egin behar dituzten hobekuntza-planak ikuskatzeari buruzkoek dute ikasturte honetan lehentasuna, baita zuzendaritza-funtzioaren ebaluazioak, irakaskuntza-funtzioaren ebaluazioak eta ikastetxeen kontrolak eta ikuskatzeak ere.

Ebaluazioaren esparruari lotutako gaiek garrantzi handiagoa hartuko dute ikasturte honetan, Hezkuntza Ikuskaritzaren zerbitzuari ahalegin osagarri bat eskatuko dion zuzendaritza-funtzioaren ebaluazioa jarri baita martxan.

Horregatik, kontrolaren esparruari globalki emango zaion garrantzia arintzeko erabakia hartu da ikasturte honetan eta, halaber, esparru horretako azpiprozesuetako batzuk berrantolatuko dira. Zentzu horretan, azpiprozesuko taldearen erantzukizuna izatera pasa dira 2009-2010 ikasturtean erreferentziako ikuskariaren ardura ziren kontrolaren esparruko azpiprozesuetako batzuk. Horrek, lan-kargak arintzeaz gain, emango du jarduteko irizpideak bateratzeko aukera, haien ezaugarri bereziengatik edo zailtasunarengatik horrela eskatzen duten jardueretan.

Sakon ezagutu behar dira ikastetxeek nola erabiltzen dituzten, ikasleen hezkuntza-premiei erantzuna emateko, dituzten baliabideak eta, horregatik, ikasturteak bukatu aurretik esku-hartze bat izan behar da.

Zenbait gai gero eta indar handiagoa hartzen ari dira azken ikasturteetan: ebaluazioaren esparruari ematen zaion garrantzi handiagoa, aholkularitza, orientabide eta informazioaren esparruko jarduerak Hezkuntza Ikuskaritzari exijitzen dioten dedikazio handia, jarduera horiek bateratzeko premia eta kontrol-jarduerak gutxitzea. Puntu hauetaz gain, legeak Hezkuntza Ikuskaritzari ematen dion perfil berriari, generalistagoari, eman behar zaio arreta, baita lanpostuak betetzeko eta zerbitzua eman eta antolatzeke etor daitezkeen inplikazioei ere.

Aurreko guztiak, jarduerari lotutako lan-kargak kalkulatzeko premiak eta beraiek ikuskarien artean banatu behar izateak, lehenik eta behin, diagnostiko bat egitera behartzen dute eta, geroago, plangintza estrategiko bat, 2011-2014ko hurrengo Hiru Urteko Planerako Hezkuntza Ikuskaritzaren lanaren funtsezko ildoak definituko dituena.

2010-2011 ikasturtearen lehen hiruhilekoan Hezkuntza Ikuskaritzaren egoeraren diagnostiko sakona egingo da. Diagnostikoaren emaitzak eta Urteko Plan honen ebaluazioa kontuan hartuta, 2011-2014ko Hiru Urteko Plana formulatzeko abiapuntua izango den plangintza estrategikoa egingo da.

Aurreko ikasturteetan bezalaxe, funtsezkotzat jotzen da ikuskarien prestakuntza eta gaurkotzea kontuan hartzea eta bermatzea. Aurreikuspenen arabera, plan beraren jarduerari edo ikuskariak beren funtzioak betetzeko beste gai interesgarri batzuei lotutako jarduerak egingo dira.

Hezkuntza Ikuskaritzak ISO ziurtatzea berri du 2009-2010 ikasturtean eta UNE-EN ISO 9001:2008 arau berrira egokitu du haren sistema. Sistema honek ematen du ikuskari berriak Hezkuntza Ikuskaritzaren lana egiteko ezarritako metodologian sartzeko aukera, plantilan aldaketa ugari izango diren ikasturte batean.

Aurreko ikasturtetan bezalaxe, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko sailburuordetza eta zuzendaritza desberdinen eskaerak, Zonalde Burutzekin koordinatzeko Lurralde Arteko Batzordearen hausnarketak, Ikuskaritzaren jardueren hartzailak zein mailatan dauden pozik jakiteko inkesten emaitzak eta 2009-2010 ikasturtean Hezkuntza Ikuskaritzari egin zaizkion barne eta kanpo auditorien emaitzak hartu dira kontuan Urteko Plan hau egiteko orduan.

2010/11ko Urteko Plana atal eta eranskin hauetan egituraturik dago:

- Kalitateari buruzko politika.
- Helburuak.
- Ikuskaritzako prozesuen mapa.
- Azpiprozesuak aplikatzeko zehaztapenak.
- Euskalduntzea eta euskararen normalkuntza.
- Urteko Planaren ebaluazioa.
- Eranskinak:
 - I. eranskina: Ikuskaritzako prozesuen mapa.
 - II. eranskina: Ikuskaritza Planaren azpiprozesuak aplikatzeko zehaztapenak.
 - III. eranskina: Ikuskaritza Planaren helburuak eta adierazleak.
 - IV. eranskina: Prestakuntza Planaren jarduerak.

2. KALITATEARI BURUZKO POLITIKA

Hezkuntza Ikuskaritzaren Kalitateari buruzko Politika UNE-EN ISO 9001:2008 arauaren baldintzetako bat da, eta Lurralde Arteko Koordinazio Batzordeak eta Zonalde Burutzek adostu zuten. Hona hemen ikasturte honetan indarrean egongo den Kalitateari buruzko Politika:

- Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Hezkuntza Sailburuordetzaren menpeko Hezkuntza Ikuskaritzak (Hezkuntza Ikuskaritza esango diogu hemendik aurrera) uste du bere lana beharrezkoa dela hezkuntza-sistemak, oro har, eta ikastetxeek bereziki, kalitatezko jardunbidea lortzeko.
- Horregatik, premiazkoa da eman zaizkion funtzioak (ebaluazioa, kontrola, aholkularitza eta lankidetzak) betetzeko jarduerak behar bezala kudeatzea, eta halaxe egin beharko du ikuskari bakoitzak eguneroko bere jardunean. Horrela egiten bada, Hezkuntza Ikuskaritzaren jardunbide ona bermatuko da eta hezkuntza-komunitatearen, hezkuntza-administrazioaren nahiz Hezkuntza Ikuskaritzako partaideen gogobetetze-mailarik handiena lortuko da.
- Hezkuntza Ikuskaritzaren aktibo nagusia bertan aritzen diren langileak dira (ikuskariak eta administrariak). Horrela, Ikuskaritza Nagusia eta Lurralde Burutzak, beren lidergoaz baliatuz eta hierarkiaren, parte-hartzearen, espezializazioaren, profesionaltasunaren, talde-lanaren eta emaitzen ebaluazioaren antolaketa-printzipioei jarraituz, langileak motibaturik eta pozik egon daitezten ahalegindu eta langile horien garapen pertsonalaren eta profesionalaren alde lan egingo dute.
- Hezkuntza Ikuskaritzak, ikuskaritzaren eredu bat finkatzeko bidean, antolakuntza eraginkorra izateko konpromisoa hartu du. Ereduak ezaugarri hauek izango ditu: Ikuskaritzako profesionalak parte hartuko dute eskainitako jarduera eta zerbitzuen eguneroko kudeaketan; prozesuak etengabeko hobekuntzara bideraturik egongo dira;

eta hezkuntza-komunitatea, hezkuntza-administrazioa nahiz Hezkuntza Ikuskaritzaren gogobetetze-maila kudeatuko da.

- Erakundearen helburuak betetzen direla ziurtatzeko asmoz, Hezkuntza Ikuskaritzak kalitatea kudeatzeko sistema ezarri du. Kontuan hartuko ikuskaritzaren jarduera gidatu behar duten estrategiak, alegia:
 - ü Hezkuntza-komunitateko kide guztiek eta hezkuntza-administrazioaren arduradunek beren jardunetan dituzten beharrizanei eta itzaropenei erantzuna ematea.
 - ü Hezkuntza-komunitateko kideen eskaerei arreta hobea ematea.
 - ü Hezkuntza Ikuskaritzari eta berezko haren jardueri dagozkien legezko nahiz arauzko baldintzak betetzea.
 - ü Ikastetxeetara egiten diren bisiten kalitatea hobetzea.
 - ü Modu planifikatuan, koordinatuan eta taldean lan egitea, egin beharreko lanaren denbora-banaketa eginez eta ikuskarien artean zuzentasunez banatuz.
 - ü Planen bidez ikuskaritzako langile guztien etengabeko prestakuntza eta parte-hartze aktiboa sustatzea.
 - ü Hezkuntza Ikuskaritzaren barne- nahiz kanpo-komunikaziorako kanalak hobetzea.
 - ü Behar den malgutasunaz jokatzea, Hezkuntza Ikuskaritzaren jardueri dagozkien betekizun eta premietara egokitzeko.
 - ü Ikuskaritzaren funtzionamenduan definitutako prozesuetan izan litezkeen akatsen edo hutsegiteen arrazoiak identifikatzea eta desagerraraztea, prozesuak eraginkorragoak bihur daitezen laguntzeko.
- Kalitate-politika hau erreferentzia egokia da, ikuskaritzaren jardueran nagusi diren estrategiak ezarri eta berrikusteko. Estrategia horiek kalitatearen helburutan gauzatu dira.
- Hezkuntza Ikuskaritzak bide egokiak ezarri ditu langile guztiek politika horren berri izan eta uler dezaten. Horrez gain, bermatzen du sistema berrikustean politika ere berrikusiko dela.

3. HELBURUAK

Hauek dira Urteko Plan honetan jaso diren helburuak:

- Urteko Planaren jarduerak behar bezala gauzatzeko Ikuskaritzaren prestakuntza gaurkotzea eta ikuskarrien hizkuntz gaitasunaren maila laguntzea.
- Zuzendaritza-funtzioa eta irakaskuntza-funtzioa ebaluatzea, lan profesionala nola egiten den egiaztatzeko esku hartzeko eredu bidez.
- Diagnostiko-ebaluazioen ondoriozko hobekuntza-planen jarraipena egitea, ikastetxeen emaitzak hobekien izan daitezzen laguntzeko bisita sistematikoak eginez.
- Kalitatea kudeatzeko KGS sistema ebaluatzea.
- Planifikatutako bisiten bidez ikastetxeen funtzionamendua ikuskatzea, araudia betetzen dela kontrolatzeko.
- Ikuskaritza kudeatzeko sistemarekin jarraitu eta berori hobetzea, Hezkuntza Ikuskaritzaren ziurtatzea UNE-EN ISO 9001-2008 arauaren arabera berritzeko.
- Hezkuntza Ikuskaritzaren jardueren hartzaileen beharrak egoki asetzea.
- 2011-2014ko Hirurteko Plana egin aurretik diagnostikoa eta planifikazio estrategikoa egitea.

Plan honetan jaso diren helburuak kontrolatzeko eta zaintzeko, III. eranskinean ageri diren jarduerak eta adierazleak erabiliko dira.

4. IKUSKARITZAREN PROZESUEN MAPA

Hezkuntza Ikuskaritzaren prozesuen mapa, gertatu diren hobekuntzen ondoren (azkena 2007-2008 ikasturtean) Urteko Plan honen I. eranskin gisa gaineratzen da.

Ikuskaritzarako ezarritako Kalitatea Kudeatzeko Sistemak prozesuen arabera kudeaketa du xede eta honako egitura honen arabera dago antolatuta:

- **Makroprozesuek** kalitatea kudeatzeko sistema deskribatzen dute, UNE-EN ISO 9001:2008 araua betetzen dute eta arau horretako kapituluaren arabera antolatu dira.
- **Prozesuak** makroprozesuak arauaren baldintzak betez garatzeko tresnak dira. "Zerbitzuak identifikatzea eta ematea" makroprozesuan, prozesuak ikuskaritzaren jardueren (azpi-prozesuen) multzokatzeak dira. Multzo horiek egiteko, ikuskaritzako kontrol-, aholkularitza- eta ebaluazio-irizpide funtzionalei jarraitu zaie, edota beste batzuei: eskariaren jatorria, barne- zein kanpo-bezeroen tipologia, eta abar.
- **Azpi-prozesuak** ikuskaritzaren jardueren zehaztapenak dira. Azpi-prozesuak 2008/2011 Hirurteko Plan Nagusiaren 4. atalean, Hezkuntza Ikuskaritzako prozesuak izenekoan, jaso dira.

- **Makroprozesuak** hauek dira:
 - 01 MP.- Estrategia, Planifikazioa eta Antolakuntza.
 - 02 MP.- Zerbitzuak identifikatzea eta ematea.
 - 03 MP.- Giza baliabideen kudeaketa.
 - 04 MP.- Kudeaketa dokumentala.
 - 05 MP.- Baliabide materialen kudeaketa.
 - 06 MP.- Neurketa, Azterketa eta Hobekuntza.

Makroprozesu bakoitzeko **prozesuak** I. eranskinean, Ikuskaritzako prozesuen mapa izenekoan, zehaztu dira.

Ikuskaritza Nagusia, Lurralde Burutzak, Zonalde Burutzak eta prozesu zein azpiprozesuen arduradunak izango dira liderrak Hezkuntza Ikuskaritzaren prozesuetan nahiz azpiprozesuetan zehaztu diren jarduerak garatzeko lanean.

5. AZPIPROZESUAK APLIKATZEKO ZEHAZTAPENAK

02 MPren barruan dauden jarduerak edo azpiprozesuak dira Urteko Plan honen ardatz nagusia eta, horrez gain, horiek zehazten dute Hezkuntza Ikuskaritzak zer zerbitzu eman behar dituen. Jarduera horiek lau taldetan banatzen dira: kontrol-, ebaluazio-, aholkularitza- eta lankidetzajarduerak.

Ikuskaritzak planifikatu behar jarduerak. Planifikazio hori, hain zuzen, II. eranskinean jaso da. Eranskin horretan, jarduera edo azpiprozesuen atal hauek zehazten dira:

- Ikuskaritzak egin behar duen azpiprozesuaren edo jardueraren izena.
- Aurreikusten den gauzatze-aldia.
- Azpiprozesuaren emaitza: txostenaren mota eta txostena emateko eguna.
- Azpiprozesua aplikatzeko eremua: azpiprozesua zer ikastetxetan edo erakundetan aplikatuko den.
- Azpiprozesua planifikatzeaz eta programatzeaz arduratuko den taldea edo pertsona.
- Ikastetxeetan jarduera hori zer ikuskarik gauzatu behar duten eta ikuskariek zer eremutan aritu behar duten: zonaldean, lurraldean edo erkidegoan.

Azpiprozesu horiek dokumentatu egin beharko dira, sistemaren agiriak kudeatzeko prozesuan ezarritakoa kontuan hartuta (0401 PR Dokumentazioaren eta Erregistroen kontrola).

Aholkularitza-jarduerak Hezkuntza Ikuskaritzaren ekimenez egiten dira, erreferentziazko ikastetxeetan egindako kontrol- eta ebaluazio-jardueren ondorioz edo, baita ere, ikastetxeen nahiz Hezkuntza Saileko beste zerbitzu batzuen eskariei erantzuna emateko.

Azkenik, lankidetzajarduerak izan ohi dira Planeko jarduera guztietan lan-karga handiena dutenak, eta beti Hezkuntza Ikuskaritzako zerbitzuen hartzailleek eskaerei erantzuteko izaten dira.

Lankidetzajarduerak honela sailkatzen dira:

- Lankidetzajarduerak konplexuei erantzuteko jarduerak (oso konplexuak direlako Ikuskaritzak jarduerok definitu eta planifikatzea eskatzen dutenak, gainerako azpi-prozesuekin egiten den bezala).
- Hezkuntza Saileko arduradunek eskatzen dituzten txostenen ondorioz gauzatu behar diren jarduerak. Aipatu txostenak bi motatakoak izan daitezke: batetik, indarreko arauen arabera derrigorrezkoak direnak eta, bestetik, Hezkuntza Saila ez den erakunderen batek eskatu dituenak (Euskadiko Eskola Kontseiluak, Arartekoak, eta abarrek...). Atal horretan sartuko dira ikuskaritzako zeinahi hartzailek hala eskatuta egiten diren txostenak ere, bai eta ebaluazio-, kontrol- nahiz aholkularitza-jardueraren ondorioz Ikuskaritzak berezko ekimenez egiten dituenak ere.
- Parte-hartzeko edo lankidetzako eskaeren ondorioz gauzatzen diren jarduerak, betiere, ikuskaritza ez bada jarduera horien jabe (adibidez: epaimahaiko kide izatea, batzorderen batean parte hartzea, EFQM ebaluazioak...). Gisa horretako jarduerak jardueren erantzule den organoak edo erakunde arduradunak landu dituen oinarrien edo argibide zehatzen arabera garatuko dira.

Aholkularitza- eta lankidetzajarduerak horiek 0203 PR eta 0204 PR prozesuetan ezarritako orientabideen arabera garatuko dira.

Hirurteko Plan Nagusian (2008/2011) zehaztu dira Hezkuntza Ikuskaritzako aholkularitza- eta lankidetzajarduerarik ohikoena.

6. EUSKALDUNTZEA ETA EUSKARAREN NORMALIZAZIOA

2010/2011 ikasturterako Ikuskaritzaren Prestakuntza Planak zehazten duen langileen prestakuntzari eta euskalduntzeari buruzko 0303 PR. Programaz gain (IV. eranskina), eta euskalduntzearen hariari helduz, puntu hauek jakinarazten dira:

- Ikuskaritza euskalduntzearen helburua da euskarak apurka-apurka gero eta presentzia handiagoa izatea ikuskaritzaren txostenetan eta, batez ere, Ikuskaritza Zerbitzuan egiten diren bileretan.
- Gehien erabiltzen den terminologia egokitu eta bateratu egingo da Ikuskaritzaren jakinarazpen eta txostenetan erabiltzen den euskararen kalitatea handitzeko eta Euskara Erabiltzeko Planak aurreikusten duen horretan aurrera jotzeko.

7. URTEKO PLANAREN EBALUAZIOA

Lurralde Arteko Batzordeak eta Lurralde Burutzek egingo dituzte Urteko Plan honen betetze-mailaren kanpo-ebaluazioa eta jarraipena, Zonako Burutzekin egiten dituzten koordinazio-bileretan, baita Zonako Burutza bakoitzak bere zonako lantaldeekin egiten dituzten bileretan ere.

2010/11 ikasturtea amaitzean Urteko Plan hau ebaluatuko da. Horretarako, alderdi hauen analisiak eta ondorioak hartuko dira kontuan:

- Hezkuntza Ikuskaritzari egindako barne- zein kanpo-auditorien emaitzak. Eman diren prozesuetan nahiz zerbitzuetan gertatu diren desadostasunak, eta zuzentze- zein prebentzio-ekintzen egoera.
- Hezkuntza Ikuskaritzak eskaintzen dituen zerbitzuen hartzailleen iradokizunak, kexak eta erreklamazioak.
- Hezkuntza Ikuskaritzaren jardueren barne- nahiz kanpo-hartzailleen gogobetetze-mailaren neurketak.
- Ikuskaritzaren jardueren hartzailleen beharrak ezagutzea, premia horiek hobeto asetzeko.
- Urteko Planean aurreikusitako prestakuntzaren eta aurreikusia izan ez arren gauzatu den prestakuntzaren eraginkortasuna.
- Urteko Planaren baitan burutu diren prozesu, azpiprozesu eta jardueretan lortutako emaitzak, prozesuak eta azpiprozesuak kontrolatzeko adierazleen panelaren bidez neurtuak.
- Indarrean den Urteko Planean proposatu diren kalitate-helburuen bidez lortu diren emaitzak.
- Ikuskaritzak egindako lanaren balorazio globala, eta Kalitatea Kudeatzeko Sistemaren eraginkortasuna, Hezkuntza Ikuskaritzaren berezko jarduerak gauzatzerakoan.

Sistema Berrikusteari buruz Ikuskaritza Nagusiak egingo duen txostenean agertuko da Urteko Plan honen ebaluazioa. Txosten horretan, gutxienez, alderdi hauek bilduko dira:

- Aldaketa-proposamenak, Kalitatea Kudeatzeko Sistemaren gain, oro har, eta horren barnean, bereziki, Kalitateari buruzko Politikaren nahiz Kalitatearen Helburuen gain eragina izan dezaketenak.
- Helburuak bete izanaren eta prozesu- nahiz zerbitzu-adierazleen emaitzak.
- Barneko zein kanpoko auditorien emaitzak.
- Prozesuetan eta zerbitzuetan gertatu diren desadostasunak.
- Zuzentze- nahiz prebentzio-ekintzen egoera.
- Gogobetetze-mailaren neurketak.
- Iradokizunak, kexak eta erreklamazioak.
- Hobetzeko gomendioak.
- Ikuskaritzak egindako lanaren balorazio globala.
- Lortutako ondorioak.


Urteko Plan honen ebaluazioaren ondorioek eta lehen hiruhilekoan egindako diagnostikoaren emaitzak zehaztuko dituzte 2011-2014ko Hirurteko Planaren abiapuntua izango diren ildo estrategikoak.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko urriaren 8a

Ikuskari Nagusia



Izpta. Alfonso Fernández Martínez



II. ERASKINA

2010/11ko IKUSKARITZA PLANAREN AZPIPROZESUAK APLIKATZEKO ZEHAZTAPENAK

0201 PR Ebaluazio-jarduerak.

| KODEA | Azpiprozesua | Egiteko aldia | Emitza | | Aplikazio-eremua | Arduraduna | Azpiprozesu taldea | Azpiprozesua gauzatzea | Ikuskarien jardueraren eremua | Oharrak |
|-------------------------------|--|----------------|-------------------------------|-----------------|---|------------------------|---|-------------------------------------|-------------------------------|--------------------------------|
| | | | Txosten motak | Data | | | | | | |
| Ikastetxeen ebaluazioa | | | | | | | | | | |
| 0201 01 | Kalitatea Kudeatzeko Sistemaren ebaluazioa (KGS – Kalitatea Hezkuntzan). | 1. hiruhilekoa | Ikastetx. txostena | 12/20 | KGS ikastetxeak | J. A. Romero | M. Alonso K. Totorikaguena J.A. Fernández X. Egizabal | Erreferentziako ikuskariak + taldea | EAE | 21 ikastetxe (ARO B1 10 G1 11) |
| 0201 05 | Diagnostiko-ebaluazioa | Ikasturte osoa | Ikastetxeari buruzko txostena | Motaren arabera | Lehen Hezkuntzako eta DBHko ikastetxeak | A. Fernández J. Granja | R. Juan M. Hidalgo P. Macho JM Santiago L Barrutia G del Río A. Oianguren | Erreferentziako ikuskariak | Zonaldea | |

0201 PR Ebaluazio-jarduerak.

| KODEA | Azpiprozesua | Egiteko aldia | Emitza | | Aplikazio-eremua | Arduraduna | Azpiprozesu taldea | Azpiprozesua gauzatzea | Ikuskarrien jardueraren eremua | Oharrak |
|--|--|-------------------------------------|-------------------|---------------------|--|-----------------------------|---|------------------------------------|--------------------------------|--|
| | | | Txosten motak | Data | | | | | | |
| Irakaskuntza- eta zuzendaritza-funtzioaren ebaluazioa | | | | | | | | | | |
| 0201 10 | Zerbitzu-eginkizunak. | 2. eta 3. hiru hilabeteak | Banakako txostena | Deialdiaren arabera | Dauden guztiak eta eskaera guztiak | I. Cereceda | R. Fernández A. Mendiola M. Bermeosola I. Echeverria | Erreferentzia-ikuskarriak + taldea | Lurraldea | |
| 0201 11 | Lanpostuaren perfilarekiko langileak duen egokitze-mailaren ebaluazioa | Ikasturte osoa, eskaeraren arabera. | Banakako txostena | Eskaeraren arabera | Eskaera guztiak | | Lurraldeko buruak | Erreferentziako ikuskarriak | Lurraldea | |
| 0201 12 | Irakaskuntzan jarduteko gaitasunaren ebaluazioa | Ikasturte osoa, eskaeraren arabera. | Banakako txostena | Eskaeraren arabera | Eskaera guztiak | A. Fernández | J.I. Molinuevo I. Tazón A. Anasagasti I. Bernaola J.A. Rey A. Paniego | Erreferentziako ikuskarriak | Zonaldea | |
| 0201 13 | Praktiketako Funtzionarioen Ebaluazioa (OPE) | Ikasturte osoa | Banakako txostena | 06/30 | Praktiketan dauden funtzionario guztiak | A. Fernández I. Cereceda | M. Ruiz R. Mesanza P. J. Macho M. Bonet X. Balerdi | Erreferentzia-ikuskarriak | Zonaldea | |
| 0201 20 | Zuzendaritza-funtzioaren ebaluazioa | 1. eta 2. hiru hilabeteak | Banakako txostena | 04/20 | 4 urtetan zuzendari izan diren guztiak | A. Fernández I. Cereceda | M. Ruiz S. Ayarza M. Alonso K. Mugertza M. Bonet I. Echeverria J. Kortabitarte J.A. Ayucar | Erreferentzia-ikuskarriak + taldea | Zonaldea | Azpiprozesuaren planifikazioa Ebaluazioa |
| 0201 25 | Ikuskaritza-funtzioaren ebaluazioa | Ikasturte osoa | Banakako txostena | 06/30 | Zerbitzu-eginkizunetan dauden ikuskarriak (azken deialdia) | J.A. Romero A. Fernández | R. Fernández M. Bonet T. Murgialday | Ikuskarrien taldea | EAE | |

0202 PR Kontrol-jarduerak.

| KODEA | Azpiprozesua | Egiteko aldia | Emaiza | | Aplikazio-eremua | Arduraduna | Azpiprozesu taldea | Azpiprozesua gauzatzea | Ikuskarien jardueraren eremua | Oharrak |
|---------------------|--|------------------------------------|------------------------------------|--------------------|--|--------------|---|--------------------------|-------------------------------|---------|
| | | | Txosten motak | Data | | | | | | |
| 0202 02 | Ikastetxeen Prestakuntza Proiektuen kontrola eta jarraipena. | 2. hiruhilekoa | Ikastetx. txostena | 04/20 | Onartutako ekintzak dituzten LHko ikastetxeen lagina | J. A. Romero | | Erreferentzia-ikuskariak | Zonaldea | |
| 0202 07 | Hasierako Lanbide Prestakuntzako Programen kontrola eta jarraipena | Iraila-ekainazuztaila | Banakako txostena | Eskaeren arabera | Eskaera guztiak. | J. Granja | Marivi García L. Barrutia A. Otadui M S de Urturi | Erreferentzia-ikuskariak | Zonaldea | |
| 0202 21 | Curriculum-aniztasuneko taldeen balorazioa eta kontrola. | 1. hiruhilekoa | Ikastetxeari buruzko txostena | 10/30 | Talde guztiak | J. Granja | Marivi García L. Barrutia JA Otadui M S de Urturi | Ikuskarien taldea | Lurraldea | |
| 0202 24 | Eskolatze Osagarriko Programen eskaerak baloratzea. | Ikasturte osoa, eskaeraren arabera | Banakako txostena. | Eskaeraren arabera | Eskaera guztiak | J. Granja | Marivi García L. Barrutia JA Otadui M S de Urturi | Erreferentzia-ikuskariak | Zonaldea | |
| Haur-eskolak | | | | | | | | | | |
| 0202 40 | 0-3 urteko Udal Haur Eskolen eta Haur Hezkuntzako ikastetxe pribatuen kontrola eta jarraipena. | 2. eta 3. hiruhilekoak | EAEren txostena Ikastetx. txostena | 09/15 30/06 | 0-3 urteko eskola pribatuen eta publikoen lagina | I. Cereceda | R. Saez de Cortazar J. Solabarrieta I. Careaga A. Unamuno. A. Oianguren | Erreferentzia-ikuskariak | Zonaldea | |
| 0202 41 | Haurreskolen kontrola eta jarraipena. | 2. eta 3. hiruhilekoak | Ikastetx. txostena | 06/30 | Haurreskola berri guztiak. | I. Cereceda | R. Saez de Cortazar J. Solabarrieta I. Careaga A. Unamuno. A. Oianguren | Erreferentzia-ikuskariak | Zonaldea | |

0202 PR Kontrol-jarduerak.

| KODEA | Azpiprozesua | Egiteko aldia | Emitza | | Aplikazio-eremua | Arduraduna | Azpiprozesu taldea | Azpiprozesua gauzatzea | Ikuskatzaile en jarduera-eremua | Oharrak |
|---|--|-----------------------|---------------------------------------|-------|--------------------|--------------|--|--------------------------|---------------------------------|---------|
| | | | Txosten motak | Data | | | | | | |
| Ikastetxeen antolaketa eta funtzionamendua | | | | | | | | | | |
| 0202 50 | Eskola Ekintzaren Agiriaren (EEAren) arau-kontrola. | Ikasturte osoa | EAEren txostena | 06/30 | Ikastetxe guztiak | J. A. Romero | J. Pérez J. A. Sánchez J. L. Sabando J. A. Ayucar D. Mazuela | Erreferentzia-ikuskariak | Zonaldea | |
| 0202 52 | Ikastetxeen dokumentazio eta administrazio-agirien kontrola eta azterketa | 1. eta 2. hiruilekoa | Ikastetx. txostena | 04/15 | Ikastetxeen lagina | J. Granja | R. Fernández A. Salvador J.A. Rey J. A. Fernández | Erreferentzia-ikuskariak | Zonaldea | |
| 0202 54 | Organo Kolegiatuaren aukeraketaren kontrola eta jarraipena | 1. hiruilekoa | EAEren txostena | 12/20 | Ikastetxe guztiak | J. A. Romero | M. Garcia P. Bilbatua K. Mugertza X. Eguizabal | Ikuskarien taldea | Lurraldea | |
| 0202 55 | Eskola-egutegiaren kontrola eta jarraipena. | 2. eta 3. hiruilekoa | Ikastetx. txostena | 06/30 | Ikastetxe guztiak | J. A. Romero | J. Pérez J. A. Sánchez J. L. Sabando J.A. Otadui J. A. Ayucar | Erreferentzia-ikuskariak | Zonaldea | |
| 0202 74 | Helduen Hezkuntzako ikastetxe publikoetako arautu gabeko prestakuntza-programen kontrola | 1. hiruilekoa | Banakako txostena | 12/20 | Eskaera guztiak | J. Granja | K. Arriaga D. Rabanal X. Etxebarria P. Carnicero | Erreferentzia-ikuskariak | Zonaldea | |
| 0202 94 | Bizikidetzaren Planen kontrola eta jarraipena | 1. eta 2. hiruilekoak | Ikastetx. txostena EAEren txostena | 04/15 | Ikastetxeen lagina | A. Fernández | M. T. Ruiz R. Aliaga L. Isasa B. Manzarbeitia J. Santiago L. Torrealdai | Ikuskarien taldea | Zonaldea | |

0202 PR Kontrol-jarduerak.

| KODEA | Azpiprozesua | Egiteko aldia | Emitza | | Aplikazio-eremua | Arduraduna | Azpiprozesu taldea | Azpiprozesua gauzatzea | Ikuskatzaile en jarduera-eremua | Oharrak |
|--------------------------------|--|------------------------------------|-------------------------------------|----------------|--|--------------|--|--|---------------------------------|----------|
| | | | Txosten motak | Data | | | | | | |
| Curriculuma | | | | | | | | | | |
| 0202 71 | Programazio didaktikoak ikuskatzea eta kontrolatzea. | 1. eta 2. hiruilekoa | Ikastetx. txostena EAEren txostena | 12/20 | DBH, Batxilergoa eta Heziketa Zikloak dituzten ikastetxe guztiak | J. Granja | R. Juan E. Valencia L. Puente L. Orueta K. Mujika | Erreferentzia-ikuskariak + Ikuskarien taldea | Zonaldea/ Lurraldea | |
| 0202 73 | Curriculuma Norbanakoari Egokitzeko (CNE) eskaeren kontrola | 1. hiruilekoa | Banakako txostena | 12/20 | Proposamen guztiak | J. Granja | C. Aparicio B. Urkullu B. Manzarneitia D. Mazuela | Ikuskarien taldea | Lurraldea | |
| 0202 83 | Euskara-salbuespenen kontrola | 1. hiruilekoa | Banakako txostena | 12/20 | Eskaera guztiak | J. Granja | R. Abasolo L. Puente E. Valencia E. Berazadi R. Bergaretxe | Ikuskarien taldea | Lurraldea | |
| 0202 90 | Araubide orokorreko irakaskuntzetako emaitza akademikoen kontrola eta hedapena | 1. eta 3. hiruilekoak | EAEren txostena | 12/20 15/07 | Ikastetxe guztiak | J. A. Romero | J. A. Sánchez M. Bermeosolo J.A. Fernández | Erreferentzia-ikuskariak | Zonaldea | |
| Irakasleak eta ikasleak | | | | | | | | | | |
| 0202 08 | Etxeko Hezkuntza Arretarako programaren kontrola eta jarraipena (EHA) | Ikasturte osoa, eskaeraren arabera | Banakako txostena | | Eskaeraren arabera | | | Lurraldeko buruak | Erreferentzia-ikuskariak | Zonaldea |
| 0202 53 | Ikastetxe publikoetako irakasleen eta hezkuntz-langileen absentismoaren kontrola | Ikasturte osoa | Banakako txostena Lurralde-txostena | | Kasuen arabera | J. A. Romero | J. Pérez J. A. Sánchez J. L. Sabando J. A. Ayucar D. Mazuela | Erreferentzia-ikuskariak + Ikuskarien taldea | Zonaldea / Lurraldea | |

0202 PR Kontrol-jarduerak.

| KODEA | Azpiprozesua | Egiteko aldia | Emitza | | Aplikazio-eremua | Arduraduna | Azpiprozesu taldea | Azpiprozesua gauzatzea | Ikuskatzaile en jarduera-eremua | Oharrak |
|--------------------------------|--|-------------------------------------|--------------------|--------------------|---|--------------|---|--------------------------------|---------------------------------|---------|
| | | | Txosten motak | Data | | | | | | |
| Irakasleak eta ikasleak | | | | | | | | | | |
| 0202 59 | Zuzendaritzako karguetarako izendapen-proposamenen kontrola | 2. eta 3. hiruilekoak | EA Eren txostena | 06/30 | Ikastetxe publiko guztiak | A. Fernández | M. García P. Bilbatua J.A. Otadui X. Egizabal | Erreferentzia-ikuskariak | Zonaldea | |
| 0202 60 | Zuzendaritzaz besteko karguen izendapen-proposamenen kontrola | 1. hiruilekoa | Ikastetx. txostena | 12/20 | Ikastetxe publiko guztiak | J. A. Romero | J. Pérez J. A. Sánchez J. L. Sabando J. A. Ayucar D. Mazuela | Erreferentzia-ikuskariak | Zonaldea | |
| 0202 85 | Irakasleen titulazioen kontrola | Ikasturte osoa, eskaeraren arabera. | Banakako txostena | Eskaeraren arabera | PTko prestakuntza-eskaeraren arabera | R. Fernández | B. Urkullu B. Manzarbeitia D. Mazuela | Azpiprozesu taldeko ikuskariak | Lurraldea | |
| 0202 86 | Ikasleen absentismoaren kontrola | Ikasturte osoa | EA Eren txostena | 09/15 | Lehen Hezkuntzako eta DBHko ikastetxe guztiak | I. Cereceda | M. García L. Barrutia S. Ayarza P. Carnicero | Erreferentzia-ikuskariak | Zonaldea | |
| 0202 87 | Ikasleen arteko larderiaren eta tratu txarren eraginaren kontrola eta jarraipena | Ikasturte osoa | EA Eren txostena | 09/15 | Gertatzen diren ikastetxe guztiak | A. Fernández | M. T. Ruiz R. Aliaga L. Isasa L. Torrealdai B. Manzarbeitia A. Fernández | Erreferentzia-ikuskariak | Zonaldea | |
| 0202 91 | Ikastetxe publikoetako langileenganako eraso kasuen kontrola eta jarraipena | Ikasturte osoa | EA Eren txostena | 09/15 | Gertatzen diren kasuak | A. Fernández | Lurraldeko buruak | Erreferentzia-ikuskariak | Zonaldea | |

| KODEA | Azpiprozesua | Egiteko aldia | Emitza | | Aplikazio-eremua | Arduraduna | Azpiprozesu taldea | Azpiprozesua gauzatzea | Ikuskatzaile en jarduereremua | Oharrak |
|--------------------------------|--|----------------|-------------------|-------------------|-----------------------------------|--------------|--|--------------------------|-------------------------------|---------|
| | | | Txosten motak | Data | | | | | | |
| Irakasleak eta ikasleak | | | | | | | | | | |
| 0202 92 | Langileen eta ikasleen lanuzteen kontrola | Ikasturte osoa | EAEren txostena | Kasua ren arabera | Gertatzen diren ikastetxe guztiak | J.A. Romero | J. Pérez J.A. Sánchez J.L. Sabando J.A. Ayucar D. Mazuela | Erreferentzia-ikuskariak | Zonaldea | |
| 0202 95 | Enplegu publikoaren diziplina-araubidea aplikatzea | Ikasturte osoa | Banakako txostena | Kasua ren arabera | Ikastetxe publikoak | A. Fernández | J.I. Molinuevo I. Tazón A. Anasagasti I. Bernaola J.A. Rey A. Paniego | Ikuskari izendatuak | EAE | |

0204 PR –Laguntza-jarduerak.

| KODEA | Azpiprozesua | Egiteko aldia | Emitza | | Aplikazio-eremua | Arduraduna | Azpiprozesu taldea | Azpiprozesua gauzatzea | Ikuskatzaile en jarduereremua | Oharrak |
|--------------------------------|--|----------------|-------------------|-------------------|-----------------------------|------------|--------------------|---|-------------------------------|---------|
| | | | Txosten motak | Data | | | | | | |
| Irakasleak eta ikasleak | | | | | | | | | | |
| 0204 02 | Hezkuntza-Saileko arduradunek eskatutako txostenak | Ikasturte osoa | Banakako txostena | Kasua ren arabera | Aurkeztu diren kasu guztiak | | | Erreferentzia-ikuskariak edo izendatutakoak | Zonaldea/ Lurraldea | |

III. ERANSKINA

IKUSKARITZA PLANAREN HELBURUAK ETA ADIERAZLEAK

| Helburua | Jarduerak | Adierazlea | Onartzeko irizpidea | Epea | Arduraduna |
|---|--|--|-------------------------------------|-----------------------|---------------------|
| Urteko Planaren jarduerak behar bezala aurrera eramateko Ikuskaritzaren prestakuntza gaurkotzea eta ikuskarien hizkuntz gaitasunaren maila laguntzea. | Prestakuntza-planaren garapena. | 2008-11ko Hirurteko Planean lehentasunezko alderdien %, 2010-2011 ikasturteko prestakuntza-planean azaltzen direnak. | % 100 | 2011ko uztailaren 15a | IKUSKARITZA NAGUSIA |
| | | Aurreikusitakoaren arabera egin diren jardueren %. | % 90 | 2011ko uztailaren 31 | IKUSKARITZA NAGUSIA |
| Zuzendaritza- eta irakaskuntza-funtzioa ebaluatzea, profesionalki jarduten dela egiaztatzeko esku hartzeko ereduaren bidez. | 0201 13 eta 0201 20 AZen jarduerak garatzea. | Ebaluatutako zuzendarien % | Aurreikusitako zuzendarien % 100 | 2011-04-15 | IKUSKARITZA NAGUSIA |
| | | Ebaluatutako praktiketako irakasleen % | Aurreikusitako irakasleen % 100 | 2011-06-30 | |
| Diagnostiko-ebaluazioen ondorio diren hobekuntza-planen jarraipena egitea, bisita sistematizatuen bidez, ikastetxeen emaitzak hobekuntza-planen % | 0201 05 AZren jarduerak garatzea. | Jarraipena egin zaien ikastetxeen hobekuntza-planen % | % 100 | 30-06-2011 | IKUSKARITZA NAGUSIA |
| | | Hobekuntza-jarduerak ikastetxearen urteko planetan sartzeko eskaera egitea oraindik sartu ez dituzten ikastetxeei. | % 100 | 2011-12-20 | |

| Helburua | Jarduerak | Adierazlea | Onartzeko irizpidea | Epea | Arduraduna |
|---|--|---|--------------------------------------|------------|---------------------|
| Kalitatea kudeatzeko sistema ebaluatzea. | 0201 01 AZren jarduerak garatzea. | Auditoria egin zaien ikastetxeen % | Planifikatutako ikastetxeen % 100 | 2011-01-31 | IKUSKARITZA NAGUSIA |
| Ikastetxeen funtzionamendua ikuskatzea, araudia betetzen den kontrolatzeko planifikatutako bisiten bidez. | Baliabideen kontrola. | Bisitatutako Hizkuntz Eskola Ofizialen % | Bisita eta txostenen % | 2011-03-30 | IKUSKARITZA NAGUSIA |
| | | Bisitatutako Helduen Hezkuntzako Ikastegien % | | | |
| | | Bisitatutako Kirol Irakaskuntzetako ikastegien %. | | | |
| Ikuskaritza kudeatzeko sistemarekin jarraitu eta berori hobetzea eta Hezkuntza Ikuskaritzaren ziurtagiria berritzea, UNE-EN ISO 9001:2008 arauaren arabera. | Hobekuntza-jarduerak antzeman, planifikatu eta martxan jartzea. | Martxan jarri diren hobekuntza-jardueren kopurua. | > 3 | 2011-06-30 | IKUSKARITZA NAGUSIA |
| Eraginkortasunez erantzuna ematea Hezkuntza Ikuskaritzaren hartzaileen premiei. | Hartzaileen eskaera eta premiak kudeatzeko sistema martxan jartzea, on line aplikazio informatikoaren bidez. | Hiru lurraldeetan ezartzen da. | S/N | 2011-04-01 | IKUSKARITZA NAGUSIA |
| 2011-2014ko Hirurteko Plana egin aurretik behar diren diagnostikoa eta planifikazio estrategikoa egitea. | Ikuskaritzaren diagnostikoa egitea. | Hirurteko Planerako ildo estrategikoak zehaztea. | S/N | 2011-06-30 | IKUSKARITZA NAGUSIA |
| | Plangintza estrategikoaren berrikuspena. | | | | |

IV. ERANSKINA

PRESTAKUNTZA PLANAREN EKINTZAK

| PRESTAKUNTZA-JARDUERAREN IZENA | HELBURUAK | EGITEKO ALDIA | ORDU KOPURUA | PARTE-HARTZAILEAK |
|---|--|---------------------------------------|-------------------|-----------------------------------|
| EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO HEZKUNTZA IKUSKARITZAREN AZPIPROZESUAK. | Ikuskaritzaren lana egiteko dauden tresnak erabiltzeko behar den euskarri teorikoa eskuratzea, barneko WEB orrian diseinatutako kontsultatzeko sistema eta Ikuskaritzan diseinatu eta ezarritako azpiprozesu guztiak erakutsiz. | 2010eko IRAILA | 2:30 | IKUSKARI BERRIAK |
| ALDERDI JURIDIKOAK ADMINISTRAZIO-PROZEDURA: ALDERDI OROKORRAK. | Ikuskariaren jarduera definitzea administrazio-prozeduraren eta euskal funtzio publikoaren esparru orokorrean. | 2010eko IRAILA | 2:30 | IKUSKARI BERRIAK |
| IRAKASLEEN FUNTZIO ETA ARDURAK DIZIPLINA-ERANTZUKIZUNAREN ALDERDI OROKORRAK. | Irakasleen, haien funtzioak betetzean, eskubide eta betebeharrak urratzen badira, aplikatu beharreko administrazio-prozedura ezagutzea. | 2010eko IRAILA | 5 | IKUSKARI BERRIAK |
| ALDERDI JURIDIKOAK DIZIPLINA-ESPEZIENTEAK AURRERA ERAMATEKO PROZEDURA GAURKOTZEA. | Ikuskariaren jarduera definitzea administrazio-prozeduraren eta euskal funtzio publikoaren esparru orokorrean. | 2011ko APIRILA | 5 | IKUSKARI GUZTIAK |
| EUSKARA TXOSTENAK EUSKARAZ ERREDAKTATZEKO TEKNIKA ETA BALIABIDEAK. IKUSKARITZAREN OHIKO IDAZKIETAN EUSKARAZ GEHIEN ERABILTZEN DEN TERMINOLOGIA BATERATZEKO IRIZPIDEAK EDO ARGIBIDEAK GAURKOTZEA. | Ikuskaritzaren txostenak euskaraz egiteko erabili beharreko teknika eta hizkuntz baliabideak berrikustea. Ikuskaritzak normalean egiten dituen idazki motetan terminologia egokiena erabiltzeko ikuskarien prestakuntza gaurkotu eta handitzea. | 2010eko URRITIK 2011ko EKAINERA | 24 (lurreko 8) | HIRU IKUSKARI TALDE LURRALDEKO |

| PRESTAKUNTZA-JARDUERAREN IZENA | HELBURUAK | EGITEKO ALDIA | ORDUE N KOPURUA | PARTE-HARTZAILEAK |
|--|---|-----------------------------------|-----------------|--|
| EBALUAZIOA ETA IKUSKATZEA DIAGNOSTIKO-EBALUAZIOA | Ikastetxeen hobekuntza-planen jarraipena egiteko ikuskariei prestakuntza ematea. | 2009ko URRITIK 2011ko EKAINERA | 10 | IKUSKARI GUZTIAK |
| | Ikastetxeen emaitzei buruzko txostenak interpretatzea. | AZAROAREN 5a | 5 | IKUSKARI GUZTIAK |
| EBALUAZIOA ETA IKUSKATZEA IRAKASKUNTZA- ETA ZUZENDARITZA-FUNTZIOAREN EBALUAZIOA. | Irakaskuntza- eta zuzendaritza-funtzioa ebaluatzeko tekniketan ikuskarien prestakuntza gaurkotu eta handitzea. Beste erkidego batzuek gai honetan dituzten esperientziak ezagutzea. | 2010eko URRITIK 2011ko EKAINERA | 15 | EBALUAZIOAN PARTE HARTZEN DUTEN IKUSKARI GUZTIAK |
| GAURKOTZE AKADEMIKOA IKASTETXEEN DOKUMENTAZIO AKADEMIKO ETA ADMINISTRATIBOA, ARAUDIAREN ARABERA. HORRETARAKO PRESTATUTAKO APLIKAZIO INFORMATIKOAK. | LOE irakaskuntzen dokumentazio akademiko eta administratiboari buruzko irizpideak prestatu eta bateratzea. EAEn aurrera eramaten ari diren tresna informatikoak ezagutzea. | 2010eko URRITIK 2011ko EKAINERA | 10 | IKUSKARI GUZTIAK |
| IKUSKARITZAREN JARDUNALDIAK | Hezkuntza Ikuskaritzaren gai espezifikoetarako buruzko prestakuntza handitzea. Ikuskaritzaren lan-giroa hobetzea. | 2010eko URRITIK 2011ko UZTAILERA | 10 | 2 SAIO IKUSKARI GUZTIEKIN |